

1. Aurrekariak

Ekoguneko Baratze Parkean 161 partzela daude, herritar eta elkarteei eskaintzen direnak, autokontsumorako baratzezaintza ekologikoan jarduteko helburuarekin. Alokairuan ematen dira partzelak, 4 urtetarako kontratuaren bitartez. Partzelen kopuruaren %20a jabez berritzeko konpromezua du Ekoguneko Baratze Parkeak, hau da, gutxienez, 32 partzela berritzen dira urte beteko epean.

2. Deialdiaren helburua

Ekoguneko Baratze Parkeko partzela bat hartzeko interesa duten herritar eta elkarteei aukera ematea Ekoguneko Baratze Parkeko itzarote-poltsan egoteko, partzela bat libratzen denean alokatzeko eskaintza jaso dezaten.

3. Izen-emate epea

2025eko otsailaren 1etik 2025eko martxoaren 31 arte (biak barne).

4. Lursail motak eta prezioak

- 30m²-ko lursaila: 19€/hileko (16€/hileko Kutxabank-eko bezeroak).
- 50m²-ko lursaila: 29€/hileko (25€/hileko Kutxabank-eko bezeroak).
- 60m²-ko lursaila: 31€/ hileko (27€/hileko Kutxabank-eko bezeroak).
- 90m²-ko lursaila: 43€/ hileko (38€/hileko Kutxabank-eko bezeroak).
- Lursail egokituak (jardineria altuak behar bereziak dituztenentzat): 12€/hileko (11€/hileko Kutxabank-eko bezeroak).

5. Izena emateko baldintzak

- Donostia, Lasarte-Oria edo Hernanin errolatua egotea.
- Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko beste kide batek Donostian, Lasarte-Orian edo Hernaniko herrietan baratzezaintzarako egokia den lursailik ez izatea, ez jabetzan, ez gozamen eskubidez ezta errentamenduan ere.
- Bizikidetzaren unitate bereko pertsona bat baino gehiagok eskatu dezake lursaila Ekoguneko Baratze Parkean. Hala ere, kide bati lursaila esleitu bezain laster, bizikidetzaren unitate bereko beste kideak itzarote poltsatik kanpo geratuko dira.

6. Baratzekideentzako zerbitzuak

- Instalazioak: biltegia, aldagela, komunak, barazkiak garbitzeko gunea, haurrentzako jolastokia, txakur-gunea, hazitegi komunitarioa, e.a.
- Erreminta amankomunak.
- Baratzezaintza ekologikoan oinarritzko ikastaroa doan.
- Doako beste zerbitzuak: aholkularitza zuzena, furgobaratzaren bitartez eta baratzeparkea@kutxafundazioa.eus postontziaren bidez, tailerrak, e.a.
- Baratze Parke Sareko buletina eta webgunearen bitartez, berriak, gomendioak, laguntza teknikoak, BPSko jardueren egutegiak, e.a.
- Baratze Parkeko lurren emankortasuna mantentzeko praktika egokien gida eguneratua (azken lur azterketaren emaitzen arabera).

7. Itxarote-poltsa nola osatzen den eta nola ematen diren partzelak

Ekoguneko Baratze Parkean baratzekideen aniztasuna, aukera berdintasuna eta euskararen erabilera sustatzeko helburuak ditugu. Helburu hauek lortzeko, esleipen prozeduran Baratze Parkeko erabiltzaileen generoa, adin tarte eta hizkuntza gaitasuna aintzat hartzen ditugu. Hala, deialdi honetan izena emandako bakoitzaren hurrenkera finkatu ahal izateko itxarote-poltsa berrian, honako irizpideak aplikatuko dira:

- 40 urte edo gutxiago izatea lehenetsiko dugu.
- Genero parekotasuna bilatuko dugu itxarote-poltsa berria osatzeko orduan.
- Euskara ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna izatea lehenetsiko dugu.
- Hiru hizkuntza edo gehiago ulertu eta hitz egiteko gaitasuna izatea lehenetsiko dugu.
- Eskaeraren data aintzat hartuko da berdinketa kasuetan.

Eskaera guztiak ponderatu ondoren, itxarote-poltsa berria osatuta geldituko da. Ekoguneko Baratze Parkean partzela bat bajan emanez gero, itxarote-poltsan lehenengo dagoen pertsonari edo erakundeari eskainiko zaio lursaila. Onartuz gero, jarduera arautuko duen kontratu bat egingo da. Aldiz, eskainitako lursailari uko egiten bazaio, eta eskatzaileak itxarote-poltsan jarraitu nahi badu, berriaz eskatu beharko du, eta, kasu horretan, poltsaren azken lekura igaroko da. Bestela, baztertu egingo da eskaera.